

## HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzoko bilerak: Legarre

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Arratebideko auzokide batek eskatu du Mirabasoko Proiektua 2018ko Udalbatzan onartutako oinarrien arabera egin dadila.	Mirabasoren egitasmoa martxan dago. Amaitzen ari da aurreproiektua eta exekuzioa 2022. urte hasierarako dago aurreikusita.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du bazterbide bat egiteko Itzotik Mirafloreseraino, oinezkoen segurtasuna bermatu eta, bide batez, ikuspegi panoramiko izateko.	Bada espaloi txiki bat Diputazioak egin zuena. Ez dago aurreikusita beste bat egiterik beste aldean.
Zerbitzuak	Pertsona batek eskatu du Pitxargaineko bidea berreskuratzeko; bide horrek Arrateko errepidea Eibarko erdigunearekin lotzen du eta aukera emango du Aldatzeko igogailu berrira joateko.	2020ko abenduan, eskailerak garbitu egin dira eta inguruko sastrakak kendu.
Hirigintza	Auzoko batek eskatu du dirulaguntza-lerro bat sortzeko, arbola autoktonoen landaketa sustatu eta eukalipto landatzea saihesteko.	Gaur egun, Foru Aldundiak dirulaguntzen lerro bat dauka xede horrekin. Udalak ez du aurreikusita dirulaguntza horiek handitzea 2022an. Aztertu egingo du ea posible den etorkizunean aurrekontu barruan sartzea.
Zerbitzuak	Arratebideko auzotar batek eskatu du, egurra batzeko kamioi ugari dabilzala-eta, aztertu daitezela bideak, eta berma dadila egoera onean lagatzen dituztela; eta, hala ez bada, zehapenak jar daitezela.	Zuhaitz-mozketetarako landa-bideak erabiltzeko espediente jakin bat dago. Espediente horretan, teknikari batek ikuskatu egiten ditu bideak zuhaitz-mozketa bat egin ondoren eta lursailaren titularrari eskatzen dio bidea zegoen bezala lagatzeko, baldin eta beharrezkoa bada. Hori egin arte, ez zaio Udalean lagatako fidantza itzultzen.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzoko bilerak: Legarre

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzokide batek eskatu du berehala egin dadila Berdintasunaren eta Mekolaren arteko lehen igogailua, gutxienez.	Proiektua aurten egin da (2021 urtea), eta aurreikusita dago lanak 2022-2021 aldirako egitea.
Zerbitzuak	Batek eskatu du Itzioko parkearen eskuinaldean dagoen seinale bat ezkerrean jartzeko; itxura denez, ibilgailu astunak igarotzea debekatzeko seinalea, orain eskuinaldean dagoena, landarediz estalita dago eta txikia da.	2021eko otsailean erretiratu zen seinalea estaltzen zuen landaredia.
Udaltzaingoa	Eskatu du Arratebiderako saihebidetaren iritsieran dagoen 30 km/h-ko abiadura-seinalea lekuz aldatzeko. Eskatu du bihurgunea baino lehen jartzeko.	Neurriak aztertzen ari dira inguru horretan abiadura murrizteko, esaterako, pentsatzen ari dira abiadura kontrolatzeko radar bat jartzea aurki jari liteke.
Obrak	Salatu du Ardantza eta Arratebide kaleen arteko eskailera erdiraino dagoela bakarrik konponduta. Eskatu du txukuntzeko.	Eskailera egoera onean daude etxebizitzetaraino, jende gehien ibiltzen den lekuraino, hain zuzen.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzoko bilerak: Legarre

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du San Juan eta Mekola arteko igogailuaren matxurak eraginkortasun handiagorekin konpon daitezela. Esan du, gainera, irteera berri bat gehitu zenetik, sarriago matxuratzen dela.	2020an igogailu horretan hiru jarduketa egin ziren ekintza bandalikoengatik; sakagailuak hiru aldiz aldatu ziren eta beste behin atea. Mantentze-lan batzuk ere egin ziren, baina enpresa mantentzaileak dio lan horiek gainerako apartuetan egin direnen berdinak direla, eta, beraz, ez dutela zerikusirik geltoki berriarekin.
Alcaldía	Eskatu du azter dadila autobusen geltoki baten kokapen posible bat izatea Udalak Torrekuako etxabea duen biltegia.	Baldin eta hor kokatutako lokalak libre egongo balira, lekuren bideragarritasuna azter liteke.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Arratebideko edukiontzia sarriago mantentzea eta hustea.	Hondakinak biltzeko maiztasuna hauxe da:  Errefusa: Edukiontzia. Astean 4 egun. Papera eta kartoia: Astean egun bat. Ontziak: Astean 4 egun. Organikoa: Astean egun bat.  Ditugun datuen arabera, toki hori ez da leku bat non edukiontziek gainezka egiten duten.
Hirigintza	Bizilagun batek eskatu du plater-tiroketaren arduradunei zehapenak jartzea, lagatzen dituzten kartutxoak eta bolbora direla-eta.	Jarduera horrek Eusko Jaurlaritzak ematen duen baimena du, eta bertan dago jasota Hondakinen Gestio Plana: kartutxoak, platerak eta abarrak jasotzea. Udalaren Ingurumen Sailak Planaren jarraipena egiten du.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzoko bilerak: Legarre

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Gurutzera igotzeko hasieran dauden hiru bankuak kontrako norabidean jartzeko, alegia, Urkora begira.	Banku batzuk beste norabide horretan jarri dira.
Obrak	Batek eskatu du begiratoki bat jartzea Gurutzearen lautadan, ikusmiraz gozatzeko.	Zabalgunea (labirintoa eta txingor-jolasa) berez bada begiratoki bat.
Obrak	Batek eskatu du Arrate inguruetan pasealeku edo bidegorri bat egitea.	Arrateko Plan Bereziaren zirriborroan, proposatzen da hainbat irtenbide aztertzea oinezkoentzako bide bat egiteko Arrate eta Usartza artean, baina Plan Berezi hori ez zen amaitu eta ez zen onartu.
Zerbitzuak	Arratebide 17 zenbakiko bizilagun batek eskatu du auzoaren argiztapena hobetzea. Dioenez, farola batzuk gaizki kokatuta daude, eta beste batzuk, bere etxe parean dagoena, esaterako, etxeei zuzenduta daude.	2021eko otsailean, argien azterketa bat egin zen. Lortutako emaitzek betetzen dituzte kanpoko argiteriaren eraginkortasun energetikoari buruzko 1890/08 Errege Dekretuan zehaztutako gutxieneko mailak.
Hirigintza	Eibarren espazio libre gehiago eskatzen ditu.	Udala lan egiten ari da espazio libreetarako ekipamendu gehiago izateko (ekipamenduak eskuratuz edo sortuz), eta lehendik daudenei tratamendu berdeago bat emateko.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzoko bilerak: Legarre

Saila

Laburpena